

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
- a) **Eraztuna**, uztai bat da, gehiago edo gutxiago apaindua egon daitekeena, eskuko hatzen apaingarri gisa erabiltzen dena.
b) **Erraztuna**, uztai bat da, gehiago edo gutxiago apaindua egon daitekeena, eskuko hatzen apaingarri gisa erabiltzen dena.
 - a) Pertsonak ikuspegi **errazional** batean kokatzen dira errealitatea behatzeko.
b) Pertsonak ikuspegi **arrazional** batean kokatzen dira errealitatea behatzeko.
 - a) Polmetasa lantegian astebete pasa daramate enplegu **erregulapen** espediente egoeran.
b) Polmetasa lantegian astebete pasa daramate enplegu **erregulazio** espediente egoeran.
 - a) Saiatu zen **erreglarekin** marra zuzena egiten; hala ere, ez zitzaion nahi bezala atera.
b) Saiatu zen **erregelarekin** marra zuzena egiten; hala ere, ez zitzaion nahi bezala atera.
 - a) **Erregalua** jaso zuenean pozik geratu zen; baina, gero aldatzea erabaki zuen, erakusleihoko beste soinekoa politagoa iruditu baitzitzaion.
b) **Erregaloa** jaso zuenean pozik geratu zen; baina, gero aldatzea erabaki zuen, erakusleihoko beste soinekoa politagoa iruditu baitzitzaion.
 - a) Lurrikara baten **errepikaketa** indartsu batek, Richter eskalan 5,6 gradu izan dituenak, hildako bat eta hamar zauritu utzi ditu, gutxienez, gaur Txinako erdialdean.
b) Lurrikara baten **errepika** indartsu batek, Richter eskalan 5,6 gradu izan dituenak, hildako bat eta hamar zauritu utzi ditu, gutxienez, gaur Txinako erdialdean.
 - a) Ertzainak bi tona haxix atzeman ditu Irunen, kamioi baten **erremolkean** ezkutatuta.
b) Ertzainak bi tona haxix atzeman ditu Irunen, kamioi baten **atolian** ezkutatuta.
 - a) Joaquim Mir gaztea zela, kide batzuekin pintura ofizial eta akademizistatik eta errealismo sozializatzaileetatik urrunduz joan zen, eta inguruko errealitatea **irudikatze**ko modu benetan modernoa agertu zuen oso goiz.
b) Joaquim Mir gaztea zela, kide batzuekin pintura ofizial eta akademizistatik eta errealismo sozializatzaileetatik urrunduz joan zen, eta inguruko errealitatea **errepresentatze**ko modu benetan modernoa agertu zuen oso goiz.
 - a) Euskarak ere tarte handia du *El mundo de los Pirineos* aldizkariaren azken alean: Herri urrats festaren inguruko **erreportai** luze-zabala prestatu du Iñaki Alcaldek.
b) Euskarak ere tarte handia du *El mundo de los Pirineos* aldizkariaren azken alean: Herri urrats festaren inguruko **erreportaje** luze-zabala prestatu du Iñaki Alcaldek.

A R I K E T A K

10. a) Mendaroko Trinitateko baseliza 1105. urtean eraiki zuten. **Laukizuzen** plantadun ermita da, eta teilatua bi isuritakoa du.
b) Mendaroko Trinitateko baseliza 1105. urtean eraiki zuten. **Errektangelu** plantadun ermita da, eta teilatua bi isuritakoa du.
11. a) Hala, «Europa berria» eraiki nahi dutela jakinarazi zuen, sozialagoa izango dena eta ingurumenaren **errespetoa** aintzat hartuko duena.
b) Hala, «Europa berria» eraiki nahi dutela jakinarazi zuen, sozialagoa izango dena eta ingurumenaren **errespetua** aintzat hartuko duena.
12. a) Erositako lurrak oso **errentableak** izatea espero zuten; horrela urte gutxiren buruan egindako zorrak kitatuko zituztelakoan zeuden.
b) Erositako lurrak oso **errentagarriak** izatea espero zuten; horrela urte gutxiren buruan egindako zorrak kitatuko zituztelakoan zeuden.
13. a) Hildakoaren familiaren egonezina eta **arrangura** nabarmenak ziren, eta agerraldian presente egon baziren ere, ez zuten hitza hartu nahi izan.
b) Hildakoaren familiaren egonezina eta **errenkura** nabarmenak ziren, eta agerraldian presente egon baziren ere, ez zuten hitza hartu nahi izan.
14. a) Autonomia erkidegoetako buruek Europan «**erantzukizun** handiagoa» izan dezaten proposatu zuen.
b) Autonomia erkidegoetako buruek Europan «**erresponsabilitate** handiagoa» izan dezaten proposatu zuen.
15. a) Kamera digitala **erreminta** bat da, eta horregatik beharrezkoa da erabili aurretik zer nahi duzun pentsatzea.
b) Kamera digitala **erremienta** bat da, eta horregatik beharrezkoa da erabili aurretik zer nahi duzun pentsatzea.



Testu baten kohesioan, lokailuak garrantzi handiko baliabideak ditugu. Honako paragrafo hauetan lokailu hauek ezabatu ditugu:

*Beraz
Hala ere (2)
Izan ere
Dena den*

*Hala nola
Horregatik
Baina*

Testuinguruari erreparaturik, saia zaitez lokailu horiek txertatzen:

1. Beti dago arrisku hori. Enpresa bioteknologikoen edo klinika pribatuen ez badute bere lanaren berri eman nahi, emaitzak jakin gabe geratuko gara. _____, hori edozein arlotan gertatzen den kontu bat da. _____, gaur egun munduan egiten den ikerketa gehiena dirulaguntza publikoarekin egiten da, eta orain arte zenbait enpresek argitaratu dituzte beraien lortutako emaitzak. _____, ez dut uste momentu honetan gauza askorik dagoenik gai honi buruz ezkutuan.
2. Oraindik fidagarritasunaren arloan lan egin behar da induzituriko ama zelulekin. _____, lau gene horiek zeluletan sartzeko erretrovirusak erabiltzen dira, eta horrek segurtasun arazoak sor ditzake. Gainera, lau gene horietatik bat Myc onkogenea da, eta hasierako esperimentuan saguei tumoreak sortu zitzaizkien. _____, zenbait taldek bakarrik hiru gene sartuta lortu dituzte induzituriko ama zelulak oraintsu, Myc gabe.

3. Zail da Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968) eta euskalgintzaren arteko harremana lerro gutxitan laburbiltzea. Saia galtezen, _____, eibartar sozialistaren bilakaeraren berri ematen.

4. Errepublikak heltzean, sozialistek Eibarko udal agintea hartu zuten nagusitasun osoz. Baina udal politika arestian esan dugun haritik doa: euskara hitz egiteko hizkuntza zen, horra beraienez funtzio ia bakarra. Idazteko, hobeto gaztelania, _____, berez betidanik euskararen eskakizuna zuten lanpostuetan ezabatu egin zuten hura, _____, udaltzainburu eta idazkari lanetan.

3 Sinonimoak eman:

1. Entitateak bere prestazioak erabiltzaileen beharren aldaketetara eta dagokion **ingurumarira** egokitu behar izaten ditu.
2. Medikura, osasun etxera edota ospitalera joan eta euskaraz **artatuak** ez izateko aukerak handiak dira, tamalez.
3. Laneratze enpresen kontratistek lehentasuna izan dezakete horrelako kontratuak **esleitzerakoan**.
4. Greba egunean, gutxieneko zerbitzuak behintzat **bermatu** beharko dira.
5. Administrazio Publikoak, lege honetako artikuluetan **xedatutakoa** eginkor bihurtzeko neurri zehatzak hartu beharko ditu.
6. Alde batetik ahozko kantuak eta beste batetik idatzizko poemak, ipuinak eta antropologiako kontuak, horiek denak **txirikordatu** egin ditu.
7. Hor atzetik pasatu eta **aienatu** egin zen, lurrak irentsi izan balu bezala.
8. Auzitegi Nagusiaren bedeinkapenarekin ekitaldia egin zuten ultraeskuindarrek. Haien presentziak hiritar ugari **ernegatu** zituen.
9. Gaurko manifestazioan jende **andana** espero da Donostian.
10. Lehendakariak adierazi du kapitalismoa birsortu beharra dagoela, baina beldur gara ez ote den **hitzontzikeria** hutsa izango.
11. Langile hori ez duzu inoiz entzungo besteei **iseka** egiten edota euretaz gaizki esaka.
12. Kataluniako literaturak azken urteotan eman duen **eleberri** arrakastatsuenetakoa bat euskarara ekarri dute.
13. Zer **ondore** izan dute zure ahaleginek? Gainditu al dituzu azterketak?
14. Zer izan nahi dugun, huraxe izango gara, nondik eta zergatik gatozen dakigun **ginoan**.
15. Hezkuntza komunitateko kide batek jazarpen edo **larderia** egoera baten berri eman digu.
16. Enplegu Erregulazioako Espedienteen %90 onartu aurretik, enpresek eta langileek akordioa **erdietsi** dute.
17. Estreptomizina tuberkulosiaren tratamenduan eta bihotzaren **gaizkoaduraren** prebentziorako erabiltzen den beste antibiotiko bat da.
18. Fiskaltzak eta akusazio partikularrak **zuhurtziagabekeria** leporatuta, zigorra eskatu zuten akusatuarentzat.

SOLUZIOAK

1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:

1. a 9. b
2. b 10. a
3. b 11. b
4. b 12. b
5. a 13. a
6. b 14. a
7. b 15. a
8. a

2 Hobe itzazu esaldi hauetako puntuazio-markak "Tartekien antolaeraz eta puntuazioaz" artikuluan proposatzen direnak kontuan hartuta:

1. Beti dago arrisku hori. Enpresa bioteknologikoek edo klinika pribatuek ez badute bere lanaren berri eman nahi, emaitzak jakin gabe geratuko gara. **Baina**, hori edozein arlotan gertatzen den kontu bat da. **Hala ere**, gaur egun munduan egiten den ikerketa gehiena dirulaguntza publikoarekin egiten da, eta orain arte zenbait enpresek argitaratu dituzte beraien lortutako emaitzak. **Beraz**, ez dut uste momentu honetan gauza askorik dagoenik gai honi buruz ezkutuan.
2. Oraindik fidagarritasunaren arloan lan egin behar da induzituriko ama zelulekin. **Izan ere**, lau gene horiek zeluletan sartzeko erretrovirusak erabiltzen dira, eta horrek segurtasun arazoak sor ditzake. Gainera, lau gene horietatik bat Myc onkogenea da, eta hasierako esperimentuan saguei tumoreak sortu zitzaizkien. **Hala ere**, zenbait taldek bakarrik hiru gene sartuta lortu dituzte induzituriko ama zelulak oraintsu, Myc gabe.
3. Zail da Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968) eta euskalgintzaren arteko harremana lerro gutxitan laburbiltzea. Saia gaitezen, **dena den**, eibartar sozialistaren bilakaeraren berri ematen.
4. Errepublikan heltzean, sozialistek Eibarko udal agintea hartu zuten nagusitasun osoz. Baina udal politika arestian esan dugun haritik doa: euskara hitz egiteko hizkuntza zen, horra beraienez funtzio ia bakarra. Idazteko, hobeto gaztelania. **Horregatik**, berez betidanik euskararen eskakizuna zuten lanpostuetan ezabatu egin zuten hura, **hala nola**, udaltzainburu eta idazkari lanetan.

3 Sinonimoak:

- | | |
|-----------------------------------|--|
| 1. ingurura | 10. berritsukeria |
| 2. tratatuak | 11. burla |
| 3. adjudikatzerakoan, ematerakoan | 12. nobela |
| 4. garantizatu, ziurtatu | 13. ondorio |
| 5. erabakitakoa, ebatsitakoa | 14. heinean, neurrian |
| 6. lotu | 15. mehatxu |
| 7. desagertu | 16. lortu |
| 8. amorratzen jarri, sutan jarri | 17. gaizkiagotze, okerragotze, txartze |
| 9. mordoa | 18. burugabekeria |